



## Manuel Lasarteren bizitzari buruzko erakusleihoa

**TOLOSA** ▶ Argazkiak, bertsoak, ikus-entzunezkoa, tresnak...: bertsolari leitzarraren bizitza jasotzen duen erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian ▶ 2



Hilaren 14ra arte, arratsalde, izango da zabalik Aranburu Jauregian Manuel Lasarteri buruzkoa. I. ETXEBESTE

### LEABURU-VILLABONA ▶

## Otegi eta Zelarainen aurkako epaiketa hasi da Parisen

«Espainiak zein Frantziak jazarpenean duten paper aktiboa» salatu dute ▶ 6

### LEITZALDEA ▶

## ‘Enplega hadi’ proiektua jarri dute martxan

Cederna-Garalurek  
bultzatuta, tailerrak  
antolatu dituzte,  
autoenplegua  
sustatzeko asmoz ▶ 7

### TOLOSA ▶

## Tolosaldeko Arraun Kluba, egitasmoak azaltzen

Bilera irekiera deitu du  
gaur; informazioa  
eman eta igandeko  
batel estropada  
aurkeztuko du ▶ 3

### LEITZA ▶

## Zintzarri doinuak, gaur gauerdian

Udaberria esnatzeko eta Errege  
Magoen etorrera iragartzeko ▶ 7

### ALEGIA ▶

## Aizkoraz moztu dituzte izeiak Langaurren

Eskolako haurrek  
landatu zituzten ▶ 5

### VILLABONA ▶

## Amaia Luquin, Europako Green Cup Txapelketan bigarren

Mendiko duatloian ari da; Olaederra  
kiroldegiko gerente berria da ▶ 4



Luquin, Europako Txapelketan, proba gogorari aurre egiten. HITZA

## ERAKUSKETA ▶



Manuel Lasarteren bizitzari buruzkoak daude Aranburu Jauregian; jaioren zenetik gaurdainokoak. Ikus-entzunezko bat ere ematen dute erakusketa orduetan. I. ETXEBESTE



# Aranburun, Manuel Lasarteren omenez

Bertsolari leitzarraren bizitza biltzen duen erakusketa dago ikusgai Jauregian; hilaren 14a arte ikus daiteke, arratsaldez

## IRATXE ETXEBESTE

Bere ahotsa entzunez sartzen zara aretoan. Leitzako baserri batean nola jaioren zen, amak bularra nola ematen zion, bertso-arekiko zer sentitu izan duen... Bere bizipenak, bere ahotsen. Aurretik, ikusia dugu bere aurpegia sarreran dagoen argazki batean. Bere izena jartzen du azpian: Manuel Lasarte. Aranburu Jauregian dago hari buruzko erakusketa, hilaren 14a bitarte, eta egunero ikus daiteke, astelehen eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era.

1927an jaioren zen Manuel Lasarte Arribillaga Leitzako Franki baserrian. Frantzisko zuen aita eta Eugenia ama. Zortzi senide ziren guztira; Manuel, gazteena. Bere aurreko arrebatxoa, Joakina, zortzi urte zituela hil zen. Leitzatik Aiara joan zen familia osoa 1939an, eta Manuel handik urte batzuetara, 1954an, Oriara. Oriaratu aurretik ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituen gero Orion: Eusebio, Maria Pilar eta Maria Pilar. Lehen alaba

1958an hil zitzaion, hamazazpi hilabete zituela. Bigarren alabari ere Maria Pilar jarri zioten izena, aurrenekoaren lekua betetzeko edo. Alaba honexek egin zuen Manuel aitona.

Lana izan du bizitzako eskola Manuel Lasartek. Txikitari baserriko lanak eta enkarguak. Hamahiru urterekin hasita gaudu ferratzen Aian, Zumarragan, Eibarren, Amezketan, soldadutza ere bai, Zarautzen eta Oikinan. Tarteka, basoan pintxe eta baserrian morroi, hilabete batzuetan.

Zarautzen ferratzen ari zela, errementari ere hasi zen eta urte luzeetan aritu zen gero Orion errementaritzan. Eusebio semeak segitu dio aitaren lanbideari. Eta bertsolari, oso gazterik hasita: bertsolaritza lan gogorra dela dio. Are gogorragoa osasun eskasa izanik, eta eritasunak noiznahi.

Manuel *Uztapide* eta Manuel Lasarteren bat etortzea bertsolaritzan izan den gertaerarik ederrenetako bat izan da askoren iritziz, eta emankorrenetako ere bai: 27 urtean ibili

ziren plazarik plaza, eta urtean ia 100 saio egiteraino iritsi. *Basarri*-rekin ere harreman gozoa izan zuen: estimazio handia zioten elkarri.

## Bertsolari oparoa

Hamazazpi urterekin hasi eta 42 urtean ibili zen plazan kantari Manuel Lasarte bera. Uztapideren aurreko bertsolari batzuekin ere bai, eta geroko ia denekin plazatik ezkatatu bitartean: Xalbador, Mattin, Lazkao-Txiki, Jose Lizaso —«niri asko lagundutako gizona da Lizaso», esan izan du Lasartek—, Agirre, Azpillaga, Lopategi, Lazkano...

Dohain ugariz jantzitakoa da Manuel Lasarte: kontu-kontari gozoa eta bertsolari oparoa. Neurri-puntuetan paregabea, apala, kantari ederra eta umore finekoa, zabarkeriarik gabea. Sortzaile bikaina da: iturriari ura bezalaxe dario Manuel Lasarteri bertsoa, erraz, oztoporik gabe; eta bere iturriko ura, noski. «Nire iturritik sortzen zen ura erabili dut ber-

tsotarako», esan izan du Leitzakoak.

Berezkotasuna du iturri, berezkotasuna da gai ere. Filosofo, artista eta poeta handien bitartek dabil horretan, ia eskola-tu gabea izan arren. Adibidez, Lore eder bati eskainitako bertsoek Angelus Silesius poeta mistikoaren *die ros ist ohn warum* (arrosa zergatik gabea da) dakarkigute gogora.

Gogoan ditu Manuel Lasartek bertsolari gazteak; aholku ederrak emateko, gogoan ditu gazteak eta haurrak: bertso eskolak emana da, hain zuzen, Orioko ikastolan. Sarri deitu izan diote urteroko Eskolarteko Bertsolari Txapelketan txapelate emateko ere. Nor egokiago gazteak izan lekukoa pasatze-ko?

Eta gogoan du Jainkoa: sarri-sarri aipatzen du bertsoaren hasieran, tartean edo bukaeran. Jaungoikoa, Zeruko aita, Jesus, Jesukristo... Haren babean jartzen ditu denak eta dena: pertsonak, animaliak, natura... eta bere besoetan hazi zuen ama.

Esker onez, bertso hauxe egin zuen Lasartek berari omenaldi modukoa egiten dion erakusketa egitekoak zirela jakin zuenean: *Orain ez daukat nik kanturako/indarririk eta uzterik,/izanez ere ez zait kome-ni/olako buru austerik;/baina ez dago jende jator au/bertso bat gabe uzterik,/zuek eskertu eta agurtu/ez det egingo bes-terik.*

## Lasarteren bertsoak

Asko eta asko dira Manuel Lasartek bere bizitan idatzitako bertsoak. Erakusketan daude bilduta horietako batzuk. Bere gurasoei egindakoa da hau, adibidez: *Amak azi ninduen/bere besuetan,/ ase ta berdinduz/bular gozuetan./gero aitari laguntzen/Franki basuetan,/artzai ibili nintzan/urte batzuetan,/ lenengo antxe asi/nintzan bertuetan.*

Bere alaba zenari egindakoa, berriz, hauxe: *Jauna zerutik billa/zaizulako jetxi,/lur tristetean negarrez/bear nazu utzi./zerura jua nai dezu/ta nik ezin eutsi,/ia an biltzen geran/bihar edo etzi! Ofizioari ere kantatu izan dio Manuel Lasartek: *Sua pitzen genduen/guk goizetikan goiz,/bostak aldean edo/len-txiago ifioiz;/bazter danak beteak/atxur zarrez ta laiz,/aiek altzairuzten/jarduten gñan maiz.**

Lasartek behinola egunsentiari kantatutakoa da, ordea, azken hauxe: *Egunsenti, argi berri/zera gure alaigarrri,/gauari agur egin diogu/ta zuri ongi etorri./Bertso dago jende jator au/bertso bat gabe uzterik,/zuek eskertu eta agurtu/ez det egingo bes-terik.*

FUTBOLA ▶



**Tolosa bigarren infantil txiki torneoan**

**N. Lataburu** ▶ Iragan astean jokatzen zen infantil txiki torneoaren aurkera Ondarroako antolatuta, Bertan Tolosa CFk bigarren postua eskuratu zuen, «lan ona» eginez. Guztiara, 10 partaide aritu ziren lehiaran. Finalerdietan Tolosak Antiguoko izan zuen arerio, eta urdinek penaltietan eskuratu zuten finalerako pasea. Realak izan zuten aurkari finalean, eta 5 eta 1eko emaitzaz galdu zuten urdinek. Hala ere, «pozik» dira Mikel Urbizu eta Rafa Capa entrenatzaileen mutikoak lortutako emaitzarekin. HITZA

ARRAUNA ▶

**TAKen bilera irekia gaur, «egitasmoen berri» emateko**

Ekitaldi informatiboa 20:00etatik aurrera izango da, udaletxeko batzar aretoan; nahi duen oro joan daiteke

**NOELIA LATABURU**

Tolosaldeko Arraun Klubak (TAK) bere egitasmoen berri emateko ekitaldi informatiboa egingo du gaur, 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Deialdia irekia da. Bertan jorrratuko dituzten gaiak honakoak izango dira, besteak beste: klubaren sorrera eta hastapeanak erakusteko bideoa; egungo egoeraren berri ematea; eta Euskadiko Arraun Federazioak antolatutako batel lehiaketan ariko diren TAKeko 10 tripulazioen aurkezpena ere egingo dute, kategoria guztietan izan-



Jarraitzaile asko lortu ditu sanjoanetako estropadak. HITZA

go baita ordezkaritza. Bestalde, igande honetan, 11:30etik aurrera Tolosan egingo diren batel estropaden aurkezpena egingo dute. TAKeko 12 batel lehiatuko dira. Ondoren, etorkizuneko proiektuak eta egitasmoak emango dituzte jakitera. Zerkausi azpian egingo

diren arraun instalazio berrien gainean ere jardungo dute, eta TAKek bere proiektua aurkeztuko du. Bukatzeko, Oria ibaian egingo den presari buruzko azken «berri pozgarriak» azalduko dituzte. Klubetik herritar guztiak animatu nahi dituzte bileran parte hartzera.

GIZARTEA ▶

**Azken egunak Merkatu Txikia bisitatzeko**

Hilaren 7ra arte, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara dago zabalik

**N. LATABURU**

Laskorain ikastolak urtero Gabonetan antolatzen duen Merkatu Txikia hamargarren ediziora heldu da aurtengoan. Azken urteetan indar hartu du; honezkero hainbat eta hainbat dira ekimenari esker lortutako diruarekin abian jarri ahal izan diren proiektuak. Gabonetako oporraldiaren ondoren egingo dute antolatzaileek behin betiko zenbaketa; aurrean, lortutako dirua Saharako eskolak birgaitzen jarraitzeko izango da, baina, gainera, Ameriketara ere bidaliko dute, Amazonia Bolibiareko Moxos lurraldean Batxi-

ler barnetegia irekitzeko eta hango musikari bultzada emateko helburuarekin. Hain zuzen ere, abesbatza eta orkestra hori Europara etortzeko da 2006ko urtarrila eta martxoa bitartean, eta Laskorain ikastolako abesbatzarekin batera, herrian kontzertu bat eskaintzea ari dira aztertzen antolatzaileak.

Larunbatean itxiko ditu ateak Laskorainek antolatutako Merkatu Txikiak eta, beraz, azken aukera izan daiteke datozten egunotan bertan erosketak egiteko. Ordura arte, egunero dago zabalik, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

UDALA ▶

**2006ko egutegi fiskala etxez etxe banatuko dute**

Gaur hasiko dira banatzen; nahi duenak udaletxeko bulegoetan ere badu eskuragarri

**N. LATABURU**

Tolosako Udalak 2006ko egutegi fiskala banatzen hasiko da, gaurtik aurrera, etxez etxe. Honekin batera, udaletxeko bulegoetan ere jasotzeko aukera zabaldu du Udalak. Bertan urtean behin ordaintzen diren tributuen —ibilgailuen zerga, ondasun higiezinaren zerga, jarduera ekonomikoaren zerga, zaborren tasa, ibilgailuen sarbidea eta pasbideen tasa—, hilean behin ordaintzen diren zergen —etxez

etxeko laguntza, Haur Eskola—eta beste zerga batzuen —Musika Eskola, euskaltegia—berri ematen da. Helbideratutako errezioben kobrantzak ere azalduko dira.

Egutegiak bi helburu ditu: batetik, informazio gehiago ematea zergadunari, dituen betebeharrak fiskalei buruz eta baliu daitekeen salbuespen eta hobariez. Bestetik, garaiz adieraztea aldiroko zergak ordaintzeko epeak eta salbuespenez eta hobariez baliatuzko eskaerak egiteko epeak.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

**Gipuzkoan**  
**50.000**  
**etxetara**

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik





## ALEGIA ▶

## Soinketa ikastaroa otsailetik aurrera

Alegiako Kultur Etxean soinketa ikastaroa egingen dute otsailaren 14tik abenduaren 19ra arte. Pilates metodoari jarraitzen dion ikastaro hau asteartetan izanen da, 18:00etatik 19:30era bitarte. [www.begira.com-en](http://www.begira.com-en) edo 902 54 00 40 telefonora deituz izena eman daiteke, hilaren 23ra arte. Ikastaroa Kutzaren Gizarte Ekintzaren programak antolatuta du.

## ALEGIA ▶

## Euskal sukaldaritza berria ikastaroa

Alegiako Intxurre elkartearen euskal sukaldaritza sortzaile berriaren inguruko ikastaroa egingen dute, eta astearte eta ostegunetan izanen da, 18:00etatik 20:30era. Otsailan eta martxoan izango da. 25 urte gorakoei dago zuzenduta, eta izena emateko epea hilaren 9an irekiko dute (Kultur Etxean). Betiko plateretan oinarrituriko prestaketa berriak landuko dituzte.

## AMEZKETA ▶

## Bilborako autobusean izena emateko

Askatasunak antolatutako presoen aldeko ekintzen artean, manifestazio nazionala izango da larunbatean Bilbon. Amezketa autobusa antolatuta dute hara joateko: 15:00etan aterako da larunbatean, herriko plazatik. Gaur, hain zuzen ere, autobuserako izena emateko azkeneko eguna da. Txartelak ohiko lekuetan daude salgai egunotan.

## AMEZKETA ▶

## Euskara elkarteak sortzeko bigarren bilerarako deia

Gaur, 19:00etan, balio anitzeko gelan euskara elkarteak sortzeko asmoaren gainean bigarren bilera egingen dute. Bertan proposamenak eta ideia berriak plazaratuko dituzte, eta «gogotsu dauden euskaldunen planteamenduak kontuan hartuko» direla azaldu dute deitzaileek. Euskara Elkarteak Topaguneko ordezkariaren proposamenak ere jaso dituzte.

## ALEGIA ▶

## HHIn izena emateko epea zabalik

Heldu den astelehenean hasiko dira eskolak Helduen Heziketa Iraunkorrean (HHI), eta apirilaren 3ra arte iraunen dute. Astelehenean 14:30etik 16:30era izanen dira, eta gai hauek landuko dira, besteak beste: euskara, matematika, test psikoteknikoak eta denbora-pasak. Izen-ematea telefono haurtean egin behar da: 943 67 26 60 eta 943 65 47 68.

## ALEGIA ▶ GAZTETXEA

# Alegiako Gaztetxea bere azken txanpan da: hurrengoan, 19

la hilabete pasatu da Gaztetxeak egitarau berezia hasi zuenetik; azken aste honetan ikustekoak izango dira nagusi



Alegiako Gaztetxeak aurten ere hainbat ekintza egiteko aukerak eman ditu. N. URBIZU

## NEREA URBIZU

Ez da makala Alegiako Gaztetxea egiten ari den lana bere 18. urteurrena dela eta. Hilabetez hainbat ekitaldi antolatuta dituzte eta, urtarillarekin batera, amaiera ere badator; izan ere, datorren igandean azkeneko eguna dute. Abenduaren 7an ekin zieten ekintza berezi hauei, zahagiardoa eta zerbeza perierekin. Orduetik ez dira gelditu.

Kulturarekin arras loturik dauden hainbat ekintza egin dituzte, euskal kulturarekin be-

zala: ez da zinematik eta musikarik falta izan, ezta janaririk ere (gaztain jatea, gazta, edatekoak...) eta entzutekoak eta ikustekoak ere noiz-nahi.

Oraindik egitekoak diren ekintzak, gutxi falta badira ere, besteak bezain interesgarriak dira: astelehenean *Donde se cuece la guerra* deituriko dokumentala izan zen ikusgai Gaztetxean. Asteazkeneko legez, zine-kluba dago antolatuta gaur, 21:30ean. Kasu honetan, Danimarkako filme bat izanen da, Lone Scherigianen zuzendariarena: *Wilbur se*

*quiere suicidar* da eskainiko dutena. Igandean antzerkia izanen da, 19:00etan. *Zeru garratzak* izena du, eta Interrupus Taldea da horretan ariko dena. Antzerki talde honek badiu lehendik beste obra batzuek ere; esaterako, *El gran cagaret* edo *Dias de luna llena*.

Asteartean, 21:00etan, argazki proiektzioa eta tertulia egonen da Manuel Jubertekin, Alaskako Mc Kinley (6192 m) mendia irenbera buruz.

Bestalde, Umeen Eguna bertan behera geratu zen elurtearengatik.

## ALEGIA ▶ NATURA



Languarren izeiekin egindako «bixikizioa». HITZA

## «Languarreko izeiak ez dira gehiago haziko»

Eskolako haurrek bere garaian landatutako zuhaitz batzuk aizkoraz moztu egin dituzte

## ERREDAKZIOA

Abenduaren 11n Languarre parkean bertan zeuden izeiak aizkoraz moztu eta txikitu egin zituzten. Bi urte zeramatzen bertan zuhaitz sendo hauek. «Zentzurik ez duen ekintza» hartu du Alegiako herritar batek, kexu. «Zoritzarrez»,

izei gazte horiek ez dute berriro historik emanen, azaldu dio HITZARI, eta bere tristura eta etsipena erakutsi du honen aurrean. Izei hauek bere garaian eskolako umeek landatu zituzten, Languarre gainean, Belostegi auzo aldean. «Ekintza hauek ez dute izeinik», dio haserre herritarrak.

# KIMETZ

Eguberritako eskeintzak

% 20

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

PRESOAK ▶

# Hasi da Parisen Otegi eta Zelarainen aurkako epaiketa

«Espainiarekin batera, Frantziak ere jazarpen molde ezberdinetan duen paper aktibo» salatu zuten epaituek



Euskal Herritik joandako 60 senitarteko eta lagun inguru izan ziren epaiketan. HITZA

## ERREDAKZIOA

Herenegun eman zioten hasiera Parisen Andoni Otegi leaburuarraren eta Oskar Zelarain billabonatarren aurkako epaiketari. Hain zuzen ere, hiru urte baino gehiago igaro dituzte horren zain; izan ere, 2002ko irailaren 20an atxilotu zituzten Frantzian, Bagneres-de-Luchonon, ETAko kide izatea leporatuta. Epaiketa horretan, eskualdeko bi presoek gain, Jon Olarra Guridi, Ainhoa Mujika, Saroia Galarraga eta Bruno Josie ere epaituak izango dira.

Hala, seien aurkezpena egin ostean, fiskalak leporatzen die-

tena irakurri zuen eta, ondoren, lau preso politikoez, hau da, Jon Olarra Guridik, Ainhoa Mujikak, Andoni Otegi eta Oskar Zelarainek lehenengo egunetik aurrera epaiketan ez egoteko eskaria luzatu zuten: «Sala honen barne ez dugu ezer egitekorik, epaiketa hau ukazioa eta gerra estrategia-ren ildoan kokatzen baita». Eskaria luzatu eta gero, Ainhoa Mujikak denen izenean hartu zuten hitza, eta euskal preso politikoen irakurketa politikoa egin zuen, «Euskal Herriak belaulaldi ezberdinetan jasan duen errepresioari» errepaso bat egin. Etxerat-ek azaldu

duenez, epaiketan «herritar euskaldun diren neurrian, euskaraz hitz egiteko duten eskubidea aldarrikatu zuten» itzultzaile euskalduna eskatuz, baina eskari hori ez zuten onartu eta, ondorioz, Mujikak frantzez irakurri zuen idatzia.

«Euskal Herriak errealitate kultural, politiko eta soziala den heinean herri bezala erabakitze eta bizitzeko duen eskubidea» aldarrikatu zuten idatzian, eta Espainiarekin batera Frantziak ere «jazarpen molde ezberdinetan duen paper aktibo» salatu zuten. Bestalde, «Euskal Herriaren askapenerako bidean» lan egiteaz

harro daudela adierazi zioten epaileari eta «hainbestetan alpatzen den bakea» definitzeko garaia iritsi dela azpimarratu zuten. Zentzu horretan, Anoetako Belodromoan eginiko *Orain herria, orain bakea* proposamena aurkeztu zuten, «ETAK berak, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak eta euskal eragile sozial, politiko eta sindikal gehienek bat egiten duten proposamena» dela adieraziz.

## Babesa Euskal Herritik

60 senitarteko eta lagun inguru joan ziren Euskal Herritik Parisera epaitutakoei euren babesa emateko heburuz. Etxeratak azaldu duenez, «garrrantzitsua da beraientzat gertuko babesa jasotzea, eta eskerrak eman beharra dago bertaratu ziren guztiei».

Halaber, «bi ordu inguru iraun zituen saio osoan zehar ironikoki aritu zen epaileak», Andoni Otegi idatzia euskaraz irakurtzeko eginiko eskarera ez zuten onartu eta une horretan lau presoak zutik jarri ziren eta *Eusko Gudariak* abesten hasi ziren, epaiketa etenaz. Orduan, jendarmeez «bortizki» epaiketa gelatik atera zituztela lagun eta senideen oihu eta animoen artean adierazi du Etxeratak.

Hilabete osoa iraungo duen epaiketa da herenegun egin zuten aurkezpenarekin hasi zutena, eta atzo izan zuen jarraipena. Atzokoan, ordea, lau presoek epaiketan ez izateko eginiko eskaria onartua izan ondoren, Saroia Galarraga eta Bruno Josie izan ziren. Bigarren egunean, gertakariak bildumaren irakurketa eta frogan aurkezpena egin zuten. Gaurko egunez ere izango du jarraipena epaiketak eta, aurrekoan bezala, Galarraga eta Josie izango dira bertan. Hirugarren egunean, galdeketa burutuko diete bie.

GIZARTEA ▶

## Zozketako sariduna jakitera eman dute

Bai Euskal Herriari herri ekimenak Landetxe batean asteburu bat zozketatu du, eta 043325 izan dela zenbaki saritua jakinarazi dute. Irabazleak saria jasotzeko helbide elektronikoa bat bidali behar du idazkaritza@baieuskalherriari.org helbidera edo 676 885 884 telefonora deitu. Bide batez, ekimenak eskerrak eman nahi dizkie «zozketa honen bidez Bai Euskal Herriari sostengatu duzuen guztioi».

ANOETA ▶

## Yoga ikastaroan izen-ematea hilaren 9ra arte

Yoga ikastaroa hasiko da datorren astelehentik aurrera, hilaren 9a, eta martxoaren bukaerara arte iraungo du. Hiru aukera daude bertan izena emateko: astelehenean, 18:30etik 20:00etara; astearteetan 09:30etik 11:00etara; eta asteazkenean, 18:30etik 20:00etara. Hiruhilabeteko yoga ikastaroa egiteko 41,20 euro ordaindu behar dira. Halaber, zenbait murrizpen izango dira ondorengo kasuetan: familia ugariarentzat %25ekoa, gazte txartela dutenentzat %10ekoa eta diru sarrera baxua duteenentzat deskontu bereziak izango dira. Izen-ematea udaletxean bertan egingo da hilaren 9ra arte.

ALEGIA ▶

## Aurtengo egutegia banatu dute

Alegiako AKO aldizkariak, urtero egiten duen moduan, aurtun ere egutegi bat egin du herriko argazki zaharrek. Atzo egin zuten banaketa, eta eskuratu ez dutenei jakinarazi die udaletxean egutegia jaso ahal izango dutela.

TOLOSA ▶

## Hilaren 6ra arte KZgunea itxita egongo da

KZgunea hilaren 6ra bitarte, ostirala, itxita egongo dela ohartarazi dute bertako arduradunek.

## iragarki laburrak ▶



**Albiztur.** Zatituriko baserria salgai. Berrikuntza behar du. 200 m<sup>2</sup>-ko solairu bakoitzean. Hiru solairu. 35.000 m<sup>2</sup>-ko lur sailarekin. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Alkiza.** Bi familientzako baserria salgai. Berrikuntza behar du. Informazio pertsonala. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Aduna.** 608 m<sup>2</sup> dituen pabilioia alokatzen da. Garabi zubiarekin eta egokituriko bulegoekin. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Asteasu.** 1.050 m<sup>2</sup>-ko bi solairuko eta 250 m<sup>2</sup>-ko solairu artean duen pabilioia salgai edo alokeran. Mota guztietako tresnaz eta hobekuntzekin hornitua. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Elosua.** Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m<sup>2</sup> dituen lur sailarekin. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Legorreta.** Lur saila salgai. Hiru hektarea. Sarbide egokiarekin. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Lizartza.** Eraikuntza berriko pabilioiak. 920 m<sup>2</sup> dituzten azken

moduloak salgai. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Tolosa.** Maitunaren atzealdean trasteleku berriak salgai. 8 m<sup>2</sup>-tik hornitua. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Tolosa.** Erdialdean. Marbxan dagoen lokal komertziala alokeran edo salgai. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Tolosa.** Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala alokeran. Guztia erakusleho. Basabi 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

**Eraikuntza.** Erabilgarriak diren 65 m<sup>2</sup>-ko lur saila.

## LEITZA ▶

**Asteroko azoka  
biharrera  
aurreratu dute**

Datorren ostiral hau ilbeltzak 6a izanik, jai eguna, Leitzako plaza ostiraletan egiten den merkatua egun bat aurreratu dute, eta, beraz, bihar dute egitekoa. Halaxe eman zuten jakitera aurreko astean saltzaileek, Eguberrietako azken jai eguna izanik, asteburua luzatze aldera.

## LEITZA ▶

**Karrape Irratiak  
ez du emitituko  
gaur-biharretan**

Emisioen kalitatea hobetu eta irrati hobeki entzuteko, antena eta uhin-hargailu berriak jarri behar dituzte Karrape Irratian. Hori dela-eta berritze lan hauek dirauten bitartean ez dute irratsaioerik eskainiko. Teknikoak gaur eta bihar ariko dira tresneria aldaketa horiek egiten, eta astelehenerako irratsaioekin hasteko moduan izanen direla uste dute.

## TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
  - Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarraldea.** Osas. etx.: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroako dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## ARESO ▶ AISIA

**Denbora-pasa,  
goxo-goxo,  
eskulanetan**

**Jaione Astibia** ▶ Atzo eguerdiartean, Aresoko eskolako gimnasioan elkartu ziren ume eta gaztetxo mordoska, Euskara Zerbitzuak antolatutako aisialdiko tailerretan parte hartzerantz: marrazketan, fideoekin eskulanak egiten, ohe elastikotan saltoka, eta bestelako jostaketak egin zituzten, begiraleen ardurapean. Gaztetxoak gustura ibili ziren. Azaldu zuten, ordea, Aresoko bertako ume bakarra inguratu zen bertara, gehienak Leitzatik hara joandakoak ziren. «Lastima, jakin bazekiten gaur hemen izanen ginela, baina...», adierazi zioten

HITZARI... JAIONE ASTIBIA



## EKONOMIA ▶

**‘Enplega hadi’  
proiektua  
martxan**

**Cederna-Garalur-ek autoenpleguaren bidea sustatuko du, tailerrak eginez**

## JAIONE ASTIBIA

Cederna-Garalur-eko eskualdeko garapen agentziak *Enplega hadi (Empleate)* proiektuari ekin dio. Honen bidez, «enpresa propioa sortu eta martxan jartzeko zailtasun gehien dutenei laguntzea» dute helburu, «horiei dituzten proiektuak errealitate bihurtzeko beharrezkoa dute laguntza eskainiz», jakitera eman dutenez. Ekinbide hau Europako Ekonomia Batasuneko *Equal* ekimenaren baitakoa omen da, eta enpresak sortzeko «metodo eta lanabes berritzaileen diseinu eta garapena» ditu, hain zuzen, oinarri.

Garapen agentziak bere gain dituen herrietan, horien artean daude Leitza eta Areso, «enpresak sortzeko gogoa piztu» nahi dute «batetik, autoenplegua lan munduan sartzeko bidea izan daitekeela sekula pentsatu ez dutenengan; eta, bestetik, negozio bati buruzko ideia izan eta aukera hori aurrera eramatera animatu ez direnengan», azaldu dutenez. Batez ere «gazteei eta, bereziki,

emakumeei» bideratutako proiektua da honakoa. Horrela, ilbeltzean hasita, «negozio identifikazio tailerrak eta bat martxan jartzeko beharrezkoak diren gaitasunak lantzeko tailerrak» egingen dituzte.

Eta horretan hasteko, aurrenekoa Leitza egingen dutela jakinarazi dute, ilbeltzaren 25etik otsailaren 2ra bitarte; lau modulo desberdin dituen tailerra da honakoa: hil honen 25ean, 26an eta 27an, 16:00-etatik 18:30erako orduetegiarenkin, «oinarrizko informatikari buruzkoa», 7,5 orduko iraupenekoa; beste hirurak, 5 ordukoak, «ekiteko gaitasunak eta autonomiaarako trebakuntza», beste 5 orduko «denboraren kudeaketa» eta 2,5 orduko «Nafarroako enpresen buruzko oinarriko ezagutza» lantzeko egingen dituzten modulua, berriaz, ilbeltzaren 30ean eta 31n eta otsailaren 1ean eta 2an, 09:30etik 13:00etarako orduetegiarekin. «Nahi diren moduluak» egiteko, lehenbailehen 617 60 93 28 edo 619 32 82 64 telefono zenbakietan izena ematea eskatu dute.

## LEITZA ▶ EGUBERRIAK

**Gauerdian zintzarri  
soinuak jabetuko dira**

**Biharamoneko Erregeen Magoen etorrera iragarri, edota udaberria esnatzeko asmoz**

## J. ASTIBIA

Biharra gaur bihurtzen den gauerdiko ordu beti aparteko horretan zintzarri, joale, kullunka, karraka soinuak jabetuko dira herriko txoko, kale eta ataritzak.

Labetxeko ataritik atera eta herriko kaleetan barrena ibiliko dira herritarrak, gaur gauerditik aurrera «zintzarri jotzen». Soinua atezaz, herriari itzulia emanen diote, edo bihar iritsiko diren Errege Magoen etorrera iragarri edo udaberria neguko loaldetik esnatzen hasiaraziz, ala diak batera ere bai. Edozein moduz, gaueko ixiltasuna urrutitik entzuten diren joale-hotsek hausten dute eta xarma berezia eragiten du burrunbak, bertaratzen den ahala. Lekuten, joaledunek lasterkaldiak egiten dituzte, gainera, zintzarri soinuaren eritimoa azkartuz. Udaberriari atea jota edo opariak ekarriko dituzten hurrengo eguneko bisitariak eragindako pozez, lotarutako dira etxeetan herritarrak.

Bitartean, kalejiran parte hartu duten guztiak txokolate beroa izanen dute zain Labetxean, Aurrera elkartearen bitartez. Gaur gauetz helduen txanda izanen den bezala, bihar



laz etorri ziren pajekak. J. ASTIBIA

goizean umeen txanda izanen da.

Baina hori baino lehen, gaur 18:30ean herriko plazara Errege Magoen laguntzaileak umeen eskutitzak jasotzera etorriko direla iragarri dute. «bihar hona iristerako, zuzenean Erregeei helerazi eta lanak ongi egin ditzaten». Plazan egonen dira, beraz, umeen eskutitzak jasotzeko prest.

**iragarki laburrak ▶****SALGAI**

**Txakurra.** 3 hilabeteko artzainbaxkurkumea salgai. Interesatuek deitu 687 00 68 66 telefono zenbakira.



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko urtarrilaren 4a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

10

hotzena

07

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN

Guardetxe:

gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:

gaur: bai / bihar: bai

HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**ANTZERKIA**

**Irura.** Irurako haur eta gazteboek eskainitako antzerki irakurria. 17:30ean, Kulturunean.

**DEIALDIAK**

**Amezketak.** Euskara elkarteak sortzeko bigarren bilera; proposamenak jaso eta plazaratuko dituzte. 19:00etan, balio anitzeko gelan.

**Tolosa.** Herritarren parte-hartze jardunaldiak hilaren 13an eta 14an, arau subsidiarioez. Parte hartzeko deitu 943 69 74 50 telefono zenbakira.

**Tolosa.** Tolosaldeko Arraun Klubaren bilera. 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Gaiak: Gipuzkoako ligaxka, Eguberrietako estropada, urtegi puzgarria eta Zerkusia.

**Tolosa.** Laskorain Ikastolak urteroko Merkatu Txikia antolatuta du Kultur Etxean, Sahararen eta Boliviaren alde. Saharara bidaltzeko elikagaiak ere jasoko dituzte bertan. Hilaren 7ra arte, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**Tolosa.** Txinparta elkarteak urteroko Errege kanpaina du martxan, lurreamendin, Belateko zentroan eta San Cosmen banatzeko. Opariak edo dirua Errementari 32ra eraman daitezke, 19:30etik 22:30era.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Juani Alkortaren margolanak. Hilaren 9ra arte, Jubilatuen tabernan.

**Tolosa.** Manuel Lasarte bertsolari leitzarrari buruzko erakusketa, Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Alejandro Tapiaren pinturak, Aranburun.

**ZINEMA**

**Alegia.** *Wilbur se quiere suicidar.* 21:30ean, Gaztetxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Ollareaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

# Berastegi eta Tolosa

**I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶** Ibaik, Inharrek eta Iratik Berastegi marraztu dute; Maialenek, berriz, Tolosa; hauexek dira haien lanak



**BERASTEGI ▶**

**Ibai Esnaola Barriola (10 urte, Berastegi).**


«Nire herrian abere ugari dago abeltzantzarengatik, hauen artean ardia, behia, txerria, zaldia, astoa, untxia, zakurra... Marrazkian San Martin elizaren ingurua azaltzen da».



**BERASTEGI ▶**

**Irati Intxaurren (6 urte, Berastegi).**

Irati gure lagun berastegiarrak ere ekarri digu bere lana HITZARA. *Udaberriaren ispilua* jarri dio izenburu marrazkiari, eta irudi koloretsuz eta alaietz beteta dago.



**BERASTEGI ▶**

**Inhar Esnaola Barriola (8 urte, Berastegi).**

«Berastegiko eliza inguruko paisaia da hau. San Martin eliza, honen eskuinean Jauli dorretxea. Zelai eta muino berdeak ere baditugu aberez beteak, oraindik pabilioiz estali gabeak».



**TOLOSA ▶**

**Maialen Zubillaga Etxeberria (10 urte, Tolosa).**

Zerkusia aukeratu du gure lagun Maialenek bere marrazkirako. «Zerkusia oso toki polita da, baina leku batzuk nahiko zikinak eta nazkagarriak daude», azaldu digu.

**AGURRAK ▶**

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA** • Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!